


# Suge gorbataduna, antzezlari aparta

Migel Mari Elosegi\*



## FITXA TEKNIKOA

### Suge gorbataduna

<b>Espezia:</b>	<i>Natrix natrix</i>
<b>Familia:</b>	kolubridoak
<b>Ordena:</b>	eskuamatuak
<b>Klasea:</b>	narrastiak

**G**aztetxoak nintzen animalia honen antzezlana lehenengo aldiz ikusi nuenean. Egun hartan arrantzan ari ginelarik, uhinen modura urazalean mugituz, suge koskor bat ikusi genuen errekan, eta adin hartako bihurrikeria lagun, kanaberaren puntaz zirikatzea bururatu zitzaigun. Baina ustekabea, sugea tri-paz gora gelditu zen, ahoa zabal-zabal irekita eta mingaina zintzi-


lik. Une hartan guk ere antzeko aurpegia izan genezakeen, ez bai-kenuen inondik ere ulertzen ukitze hutsez suge hura nola akaba zitekeen. Ur-korronteak bitartean, hildako sugea errekan behera eraman zuen, baina guregandik metro batzuk aldendu zenean, bere onera etorri eta ziztu batean ezkutatu zen sasi artean. Gezurti halakoa! Iruzur latza egun hartan egin ziguna! Halere, ez da hau suge gorbataduna antzeslanetan ikusi ahal izan dudana aldi bakarra. Urte batzuk geroago, ikuskizun berria eskaini zidan. Bigarren hura, mendiko bide-zidor batean topatu nuenean, tente jarri zen eta lepoa puzten zuen bitartean ziztuka hasi zitzaidan. Hurbiltzeko keinua egiten nionean, ausardia beldurgarriaz aurre eginez erantzuten zidan. Antzezlana bikain hura, gainera, efektu berezi eta guzti amaitu zen: sugeak uzkiro guruina hustu eta ki-


rats nazkagarria zuen zorrotadaz agurtu ninduen.

Ikusi dugun bezala, suge gorbatadunak (*Natrix natrix*) sistema bi-txiak erabil ditzake etsaiek bakan-utz dezaten: batetik, hildakoa-ren zein pizti beldurgarriaren plantak egiteko gaitasuna du, eta bestetik, usain nazkagarria bota dezake. Hozkarik, ordea, ez du egiten eta egingo balu ere, ez luke inongo arriskurik izango po-zoirik ez duelako. Normalena, halere, ezer egin baino lehen ihes egiten saiatzea da. Edozein mo-dutan ere, sugearen tamaina bera nahikoa izan daiteke etsai bat-zuengan errespetua sortzeko. Honela, normalki txikiagoak ba-dira ere, emeak tarteka metrotik gorakoak (120 cm artekoak) di-ra inguruotan. Arrek aldiz, nekez izaten dute 75 cm-tik gorako lu-zera. Bi sexuek gorputz sendoa, ongi definitutako burua, eta begi-nini biribilak izaten dituzte.

Narrasti honen kolorea zehaz-tea, bestalde, ez da erraza, bai eskualdearen arabera eta bai ale batetik bestera aldakortasun handia ager baitezake. Oro har, kolore berdintsua izaten du gor-putzaren gainaldean: arre berdas-ka edo oliba-kolorea, orban ilun txikiz marraztua. Azpialdea oste-ra, zuriska izaten da, eta xake-

Suge gorbataduna oso arrunta da gure herrian. Lepoko orbain zuria dela eta, erraz ezagutzen da.





-taulen moduko lauki beltzez apaindurikoa. Baina aipatu dugun kolorazio tipiko horrez gain, ale beltzak, gorriak, grisak eta bestelakoak ere aurki daitezke. Euskarazko izena ematen dion gorbata delakoa, berriz, gazteek lepoan ageri duten orban zuriska edo horia izaten da. Baina zahartu ahala, kolorea galtzen joaten da, ia guztiz desagertu arte. Alabaina, espezie hau antzeketatik bereizteko beste ezaugarri hauek ere kontutan hartu behar dira: Suge biperakarak (*Natrix maura*) ez bezala, gorbatadunak sudurzuloak, alboetara begira ditu eta ezpainaren gainean 7 ezkata ditu, 3. eta 4.ak begia ukitzen dutelarik. Normalki begi aurreko ezkata bakarra eta begi atzeko hiru ditu. Ezkata dortsalek 19 lerro eratzen dituzte eta zertxobait karenatuak izan ohi dira. Ezkata bentralen kopurua, azkenik, 157-183-koa izaten da. Bestalde, Europan gehien hedaturiko narrastia dugu. Hegoaldeko muga Afrikaren iparraldean du, eta Europan iparraldean, 67 graduko latituderaino hedatzen da. Ekialderantz berriz, Asiako Baikal lakuraino heltzen da. Dena dela, eskualde zabal honetako leku aproposetan besterik ez da bizi, noski, eta irla batzuetan, Irlandan, Balearretan, Maltan, eta Kretan adibidez, ez da batere ageri.

Hain banaketa zabala edukita, jakina, habitat ezberdinak bete ditzake. Guztien gainera, leku heze eta belar-soro zingiratsuak maite ditu, baina aldi berean lehorrean ederki moldatzen da. Honela bada, hariztiak, landak, sastrakadiak eta baso mistoetan maiz ikusten da. Ondorioz, ia Euskal Herriko lurralde osoan aurkienezake. Leku euritsuetan nonahi ibil daiteke eta lehorretan, zokorik hezeenetan. Marrastu dugun banaketa-mapan ikus daitezkeen, Bardeak, eta Lizarra eta Tafalla arteko eskualde lehorrak kanpoan utzi ditugu bertan ikaragarri urria delako. Bestalde, ez du

mendirako joera handirik ageri. Alderantziz, altuera ertain eta baxuetan ugari ageri da eta 1.100 metrotik gora ez da aurkitu. Beste narrasti guztiak bezala, suge gorbatadunak ere ez dira euren tenperatura erregulatzeko gai. Goizeko lehen orduetan eguzkitan berotu eta martxan jartzen dira, baina bero zakarra egiten duenean, itzalean egon edota uretan sartu ohi dira. Negua, berriz, azarotik martxora arte, zuloren baten babesean pasatu behar dute lozorroan. Elikadurari dagokionez, suge gorbataduna anfibio-ehiztari bizko-

daitezkeen. Emeekin parekatu ahal izateko, arren arteko lehia ematen da. Arrautzak (6-50 inguru) ekaina eta abuztua bitartean erruten dituzte, gorotz-pila, orbel, edo harripean gordirik. 7-10 aste beranduago 16-19 cm-ko sugetxoak jaiotzen dira. Baina erne ibili beharko dute txiki hauek, etsaien urdailean bukatu nahi ez badute. Suge gaz-

**Bizilekuari dagokionez, lehorrean zein ur-inguruetan aurki daiteke. Anfibio-ehiztaria denez, maiz ikusiko dugu hezeguneetan.**



rra dugu. Gazteak, zapaburu-jale amorratuak dira eta helduek, igel, zapo eta uhandre ugari ehizatzen dituzte. Hauez gain, arrain, sugandila edo xagutxoren batekin osatzen dute beren dieta. Ehizakiak oso-osorik irentsi ahal izateko, baraila-sistema askea dute; hau da, ehizaki handia irentsi behar dutenean barailak askatu egiten dituzte eta, lepoa zabalduz, euren lodierako ehizakia barneratzea lortzen dute. Gero, ahoa irekiz barailak bere lekura itzularaz ditzakete.

Udaberrian ugaltzen dira, nahiz eta batzuetan udaberrian eta udazkenean, urtean bitan, ugal

teak, arrain, igel, arratoi eta hortik gorako harrapari gehienek jaki dira. Helduak halaber, mustelidoek, lertxun eta amiamokoez, arrano sugezaleek... eta beste askok harrapatzen dituzte. Gizakiak berak ere, suge gorbatadun asko hiltzen du. Batzuetan kotxeen gurpilek zapalduta eta beste askotan, harri edo makilakadaz jota, arriskutsua edo kaltegarria den aitzakiaz. Zalantzarik gabe, haseran ikusitako antzezlan guztiak ere ongi etorriko zaizkio bizirik iraun ahal izateko.



\* Biologoa